LASARTE-ORIA

INGURUMEN-HEZKUNTZA PROGRAMA

2023-2024 ikasturtea


LARRIALDI KLIMATIKOA
002
ATERKIAK

2023-2024 ikasturtean, Lasarte-Oriako Lehen Hezkuntzako bi ikastetxeek Ingurumen Hezkuntza Programan parte hartu dugu: **Landaberri Ikastolak** eta **Sasoeta Ikastetxeak**. Zehazki, Lehen Hezkuntzako 4. mailako, 5. mailako eta 6. mailako ikasleak.

Guztira, ia **400** ikasle izan gara.

IKASTETXEAN EGINDAKO LANKETA

Aurreko ikasturtearen amaieran, bi ikastetxeetako irakasleek egindako balorazioen arabera, programaren edukietan aldaketa bat egitea eskatu zuten, bereziki, lantzen diren gaien inguruan; Hori horrela, ura gaia energia gaiagatik ordezkatua izan da aurten.

Hala, 2023-2024 ikasturteko Ingurumen Hezkuntza Programaren hartzaileek, hondakinak, landaredia eta energia gaiak landu ditugu, gai bat maila bakoitzean.

Hiru mailetan proposatutako jarduerak dinamikoak, motibatzaileak eta erakargarriak izan dira eta landutako gai nagusietan ildo berari jarraitu diogu: lehenik, gai bakoitzaren azterketa orokorra egin dugu, eta, ondoren, hurbileko ingurunea, hau da, Lasarte-Oriako udalerria, ezagutu eta aztertu dugu hainbat ekintza ezberdin eginez. Bukatzeko gaiaren inguruan jolasean aritu gara.

Proiektuaren hartzaile nagusiak ikasleak bagara ere, irakasleek ere inplikazio-maila haundia dute, eta, gainera, programak gure inguruko pertsonengan (familia, lagun-talde…) eragina izan dezakeela uste dugu.

HONDAKINAK

Laugarren mailako ikasleok hondakinen gaia landu dugu. Hondakinen arazoa hobetzeko 3 pauso jarraitu behar direla ikusi dugu: lehenengoa, hondakinak murriztea; bigarrena, hondakinak berrerabiltzea eta hirugarrena, hondakinak birziklatzea. Hori guztia ikasteko hiru ekintza egin ditugu ikasturtean zehar:

- Hasteko, **kontsumo tailerra** egin dugu ikastetxean bertan, eta hondakinak murrizteko eta berrerabiltzeko aukerak ikasi ditugu. Berrerabileraz jabetzeko, ziba edota diru-zorroak sortu ditugu.
- Jarraian, zabor poltsen tailerra egin dugu, egunero sortzen ditugun **hondakinak** nola bereiztu eta **sailkatu** behar ditugu ikasteko. Gainera, gizakiaren historian zehar sortutako hondakinak nola aldatu diren ikusi dugu, eta horrek Lasarte-Oriako hondakinen sisteman gertatzen ari diren aldaketak lantzeko aukera ere eman digu.
- Bukatzeko, ikasitakoaren errepasoa egiteko, **hondakinen jolasa** egin dugu. Jolasaren oinarria antzararen jolasa izan da, hondakinen gaia lantzeko diseinatutako tableroa erabilita. Ikas taldea talde txikiagotan banatu gara, eta hainbat gaien inguruko galderak erantzun eta frogak egin behar izan ditugu, esaterako, gaikako bilketa, birziklapena, kontsumo arduratsua, espazio publikoen garbitasuna, kutsadura...

LANDARETZA

Bosgarren mailako ikasleok, berriz, landaretzaren gaia landu dugu. Lanketa hori egiteko, ikasturtean zehar, hiru ekintza egin ditugu:

- Lehenengoa: zuhaitzak, basoak eta bertako landaretza ezagutzeko saio teoriko-praktikoa egin dugu. Horretarako, gelan ordubeteko iraupena izan duen ikus-entzunezko aurkezpen baten bidez Euskal Herriko basoen bilakaera, zuhaitzen sailkapena, Euskal Herriko zuhaitz garrantzitsuenak, basoen onurak, kontserbazioaren garrantzia… ikasi ditugu. Saioa osatzeko, **irteera** egin dugu, Landaberri ikastolakoak Sorginzulo basora, eta Sasoetakoak, aldiz, Basotxoko basora. Bertan, landaretza aztertu, hostoen ezaugarriak ezagutu eta gako dikotomikoak erabiliz, zuhaitz bakoitzaren izena ezagutu dugu.
- Bigarrena: **sendabelar tailerra** egin dugu ikastetxean. Propietate ezberdinak dituzten landareen bidez izpilikua, intsusa, ilena eta santio belarra argizariarekin nahastuz ukendua egin genuen. Lan horretan ari ginen bitartean, sendabelarren koadernoa ere osatu dugu, sendabelarren informazio laburra bilduz.
- Hirugarrena: Lasarte-Oriako Froilan Elespe **parke botanikora** joan gara bertako espezieak ezagutzera. Antzararen **jolasa** oinarritzat hartuta, jolasean ibili gara parkean. Helburua, ezkutatuta zeuden 11 pieza topatzea zen, puzzle bat osatzeko. Tableroan aurrera egin eta piezak aurkitu ahal izateko, landaretzari buruzko galderak erantzun eta parke botanikoan dauden hainbat zuhaitz topatu behar izan ditugu.

ENERGIA

Seigarren mailako ikasleok energiaren gaian murgildu gara. Horretarako, ikasturtean zehar hiru saio burutu ditugu:

- Hasteko, gelan, **aurkezpen interaktibo** baten bidez, energia zer den, energia motak, iturriak, horren kontsumoa, dugun menpekotasuna, larrialdi eta pobrezia energetikoa zer diren ikasi dugu. Ondorioz, aldaketa baten beharrean gaudela konturatu gara. Baina zer egin genezake guk? Horretaz guztiaz jabetzeko **argindar eta gas fakturak** aztertu eta ulertzen saiatu gara.
- Bestetik, energia berriztagarriak lantzeko **tailer praktiko** bat egin dugu, airez mugitzen den autoa sortuz. Horretarako, hondakinak berrerabili ditugu, adibidez, zereal kaxak, plastikozko tapoiak, egurrezko txotxak… Taldeka antolatu gara eta talde bakoitzari autoa sortzeko material guztia eman digute, baita autoa nola eraiki genezakeen pentsatzeko denbora ere. Batzuek beraien kabuz sortzea lortu dute, eta besteek laguntza jaso dugu. Behin auto guztiak sortuta, lasterketa egin dugu gelan.

Azkenik, landutako kontzeptuen errepaso egiteko **energiaren jolasarekin** jolasean ibili gara. Gaiaren inguruko galderak erantzun eta frogak eginez.



ONDORIOAK

Ikastetxean egindako lanketaren bidez hurrengoa ikasi dugu eta hainbat ondorio atera ditugu:

HONDAKINAK

- Hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatu egin behar ditugu.
- Hondakinak murrizteko moduak ikasi ditugu, esaterako erosketak egiterakoan.
- Hondakinak ondo sailkatzen ikasi dugu.
- Hainbat gauza bota aurretik berrerabiltzen ikasi dugu.
- Plastiko eta ontzi arinen erabilpen ona egiten ikasi dugu.
- Herritar guztien parte-hartzea nahitaezkoa da, gaikako bilketan emaitza onak lortzeko.

LANDARETZA

- Berdeguneak guretzat beharrezkoak dira, airea garbitu eta oxigenoa edukitzeko.
- Basoak eta basoko bizidunak errespetatu eta zaindu egin behar dira.
- Egun beroetan zuhaitzek itzala ematen digute, berotik babestuz.
- Zuhaitzak soinutik babesteko elementu naturalak dira.
- Gero eta etxebizitza gehiago egiten direnez, berdeguneak eta basoak suntsitzen ari dira.
- Gure inguruko zuhaitzak eta beraien ezaugarriak ezagutu ditugu.
- Atsobakarreko parke botanikoa hobeto ezagutu dugu.
- Zaindutako natur ingurune horiek beste espezie askorentzat bizitoki, babesleku eta janari-iturri dira, biodibertsitatea handituz.



ENERGIA

- Energia bizitzaren motorra dela jabetu gara.
- Energia gure eguneroko ekintzetan ezinbestekoa dugu.
- Erabiltzen ditugun energia iturri gehienak ez dira berriztagarriak, ez dira gure inguruan sortzen eta beraz, menpekotasun handia dugu.
- Gaur egungo gizartearen energia kontsumoa oso altua da eta horrek eragina du klima aldaketan ere.
- Larrialdi eta pobrezia energetiko egoerak ematen ari dira, baita gure inguruan ere.
- Beraz, aldaketaren ordua dela argi dugu.



GURE KONPROMISOAK

Landutako gaietan gure egunerokoan eta gure herrian zer hobetu badagoela ikusi dugu, hori dela eta, gure esku dauden gauzetan, konpromisoak hartzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Konpromiso hauek, ohikoak badira ere ezin ditugu ahaztu:

- Gehiegizko kontsumoa murriztu behar dugu, ez erosi pentsatu gabe eta materialak bota aurretik berrerabili eta ondo sailkatuko ditugu. Gainera, ez dakitenei erakutsi egingo diegu.
- Berdeguneak eta landareak zainduko ditugu, ez ditugu landareak edo beraien atalak puskatuko eta ez dugu zaborrik botako gune hauetan.
- Energiaren kontsumoarekin berdin, beharrezkoak ez ditugun argiak zein erabiltzen ez ditugun aparatuak itzaliko ditugu.
- Gai horietaz, etxean familiakoekin hitz egingo dugu, ikasitakoa kontatu eta etxean hobetu daitekeena egiteko.

UDALARI ZUZENDUTAKO PROPOSAMENAK

Herrian zenbait hobekuntza egitea gure esku ez dagoenez, udalari ondorengo proposamenak egin nahi dizkiogu:

HONDAKINAK

Gai honen inguruan iaz egindako eskaera batzuen egoera jakin nahi dugu, horregatik batzuk errepikatu eta beste berri batzuk ditugu:

- Edukiontziak:
  - Arropa birziklatzen den moduan, jostailu erabiliak biltzeko edukiontzia jarri.
  - Gaizki dauden edukiontziak konpondu.
  - Errefusaren edukiontzia irekitzeko batzuetan arazoak ditugu, ondo mantentzea eskatzen dugu.



- Hondakinak hobeto sailkatzeko txartel sistema jarri zenuten. Zein da horren emaitza? Sumatu duzue hobeto sailkatzen dela zaborra herrian? Non kontsultatu ditzakegu datu horiek?
- Birziklapena bultzatzeko kontzientziazio kanpainak egiten jarraitu, jendearengana iristeko sare sozialak (TikTok, Instagram…) erabiliz edo gune batzuen garbiketa antolatuz.
- Erabilitako objektuak (jostailuak, arropa, aparatu txikiak…) saldu edo trukatzeko bigarren eskuko merkatua antolatu.
- Funtzionatzen al du Kultur Etxean dagoen etxean soberan gelditzen den janaria biltzeko hozkailuak? Horrelako gehiago jartzeko aukerarik?

LANDARETZA

- Badakigu gure herriak lur gutxi duela, baina ez ahaztu berdeguneak sortzeaz auzo berriak eraikitzerakoan.
- Eta bereziki klima aldaketari aurre egiteko ikasi dugu zuhaitzak landatu behar direla. Aurreikusten al da landaketarik herrian?
- Bestalde, hainbat auzotan (Zabaleta, Zatarain, Zelaialde…) denbora tarte luzez egoten da belarra moztu gabe.
- Eta Okendo atzean belardi bat aisialdirako egokitzea gustatuko litzaiguke.



ENERGIA

- Esan digute herrian komunitate energetiko bat sortu dela. Non daude zehazki eguzki plakak? Hauetatik herriko edozein etxeetara iristen al da argindarra?
- Aurrekoarekin lotuta, herritar askok eman al dute izena komunitatean?
- Lortutako emaitzekin kanpaina bat egitea proposatzen dizuegu.
- Eta ibilgailu jasangarriak? Hibrido zein elektrikoak. Udalak ba al du horrelakorik? Asmorik?
- Eta geroz eta ibilgailu elektriko gehiago dagoenez gure inguruan, hauek kargatzeko guneren bat jartzea aurreikusten al da?

URA (iazko eskaeren errepasoa)

- ITURRIAK
  - Soberan geratzen den ura biltzeko sistema jarri, txakurrek edateko.
  - Iturriak sentsoreekin edo ura botoia zapaldu bitartean ateratzen dela jarri.
- ESKOLAN
  - Instalazioak aztertu eta konpondu ur ihesak saihesteko.
  - Komunetan bi botoidun sistema instalatu eta zutikako komunen ur jarioa erregulatu.
- KONTZIENTZIAZIOA
  - Ur-kontsumoa murrizteko aholkuak emanez etxe bakoitzera informazioa bidali.
  - Errekak garbi mantendu eta ibai edo erreka garbiketak antolatu.
  - Ibai eta erreketatik bildutako zaborra leku batean pilatu jendeak ikus dezan.

- Telazko poltsak, ontzi eta botila berrerabilgarriak banatu.
- Ezkutuan dauden errekak ikusarazteko, beraien izena edota egiten duten bidea azaltzen duten kartelak jarri.

BESTELAKOAK

- Bidegorri sarea handitu, eskolara bizikletaz joateko.
- Manttangorri hiribusaren zerbitzua handitu.
- Auzo bakoitzeko gutxienez parke bat estali, eguraldi euritsua denean jolasteko espazioa eduki dezagun.

LASARTE-ORIA

UDALA - AYUNTAMIENTO